


Begi isilak (Miko. 13urte)

Parkean ezagutu zintudan. Hantxe egoten zinen eserita egunero. Eguraldi ona nahiz txarra izan, euria nahiz ateri izan. Beti han, egur zaharkituzko aulkian eserita. Beti bakarrik egoten zinen, ni azaldu arte.

7 urte inguru edukiko nituen orduan. Ni ere egunero joaten nintzen parkera eta egunero ikusten zintudan. Zure ile zuritua, zure begi grisak eta zure aurpegiak garai batean ederra izan zinela adierazten zidaten. Helduen elkarrizketak entzuten nituen kolunpioan gora eta behera nenbilen bitartean:

- Ikusten al duzue agure hori?
- Bai neska, gaur ere hor. Egunero etortzen da.
- Ba niri beldur pixka bat ematen dit haurrak hemen bakarrik uzteak, ez dauka batere itxura onik.

Horrelaxe egunero, baina nik ez nuen ulertzen nola pentsa zezaketen gaizki zu bezalako agure batetaz. Eta nire barruan, zu ezagutzeko gogoak izugarriak ziren, jasan ezinak izatera

iristeraino. Egun batean, amarekin kaletik nindoala ihes egin nuen arte.

Euria ari zuen eta korrika joan nintzen parkera. Hantxe zeuden zu, aterki beltz bat eskuetan zenuelarik. Begirada galdua zenuen, infinituari begira egongo bazina bezala. Ni goitik behera bustirik nengoen eta euri tantak burutik behera irristatzen zitzaizkidan. Han ez banengo bezala zen, ikusiko ez baninduzu bezala.

- Kaixo - horiek izan ziren zuri zuzendu nizekizun lehen hitzak.
- Ez dut zure laguntzaren beharrik. Zoaz hemendik. ALDE! OSPA!

Zeharo harritu nintzen zure erantzuna entzutean, ez nuen inondik inola ere horrelakorik espero. Momentu hartan zure gana berriro ez hurbiltzea bururatu zitzaidan, baina zure hitzek nigan sortu zuten eragina izugarria izan zen. Negarrez hasi nintzen, eta inoiz egin dudan negarrik sakonena izan zen. Malkoez harantzago zihoan, eta bihotz erditik irteten zitzaidan. Etxerako bide guztia negarrez egin nuen. Euria eta malkoak nahasten ziren nire aurpegi biluzian behera. Etxera iritsi nintzenean begiak gorriturik neuzkan eta bihotza puskaturik. Nire buruan zure hitzak zebiltzan bueltaka, burrunbatsu, izugarrizko oihartzuna eginaz. ALDE! OSPA!

Bi hitz horiek ziren nire tortura. Zu ulertzen saiatzen nintzen baina zer egin nizun nik zuri?

Halere ez nengoen etsitzeko prest, zure laguna izango nintzen, nire malko guztiak bukatu behar banituen ere. Eta egunero zuregana joateko erabakia hartu nuen.

Esan eta egin. Egunero joaten nintzen zuregan eta zuri begira ematen nuen denbora. Beti begira ematen nuen denbora. Beti

begirada galdua edukitzen zenuen eta ez zenuen hitzik esaten. Ni ere isil isilik egoten nintzen, ezer esan gabe, zuri begira zutik zure aurrean, baina nire presentzia ez zenuela nabaritzen zirudien.

Baina egun batean zuregana hurbildu nintzen:

- Ez duzu etsitzen. E, neskato? - esan zenidan.
- Zure laguna izan nahi dut.
- Inork ez du itsu baten laguna izan nahi.

Itsua! Orduan konturatu nintzen zergatik edukitzen zenuen begirada galdu hura. Ez zenuen ikusten.

Nik zure laguna izan nahi dut - errepikatu nizun - nahiz itsua izan.

Ondo da, zatoz hona.

Zure alboan eseri nintzen. Hitz eta pitz egon zinen, oso jende gutxi hurbiltzen zela zuregana, helduek gaizki hitz egiten zutela zutaz...

Egun hartatik aurrera zure laguna izan nintzen.

Beste haurrek Txanogorritxo, Edurnezuri eta horrelako ipuin aspergarriak entzuten zituzten bitartean, nik oraindik ere entzun ditudan ipuinik ederrenak entzuten nituen zure ahotik, eta denak gogoratzen ditut, ordutik hamalau urte igaro badira ere.

Hamalau urte! Nork esango luke gaizki jantzitako agure hura nitaz gehien zekien pertsona izango zela, nire gurasoak baino askoz ere gehiago. Baina halaxe zen. Nire bizitza osoa ezagutzen zenuen. Haurtzaroko jolasak, adoleszentziako arazoak, heldutasunerako pausoak... Guzti guztia zenekien.

Gainera ulertu egiten ninduzun eta kexarik gabe entzuten zenituen nik esaten nizkizun gauza guztiak. Aholku eske joaten nintzenean inoiz ez zenidan bizkarrik eman, beti zeunden niri laguntzeko prest. Bihotz - bihotzez MILA ESKER

Baina inoiz erakutsi zenidan gauzarik zakarrena eta aldi berean ederrena zure bizitza izan zen. Orain lerro hauetan idatzi egin nahi dut zuk zure bizitzari buruz esan zenidana zure hitzekin.

"1953an jaio nintzen, Martxoaren 22an. Baserritarra izanik gustura bizi nintzen nire bizimoduarekin. Gainera ordurako banuen diru bat bildurik. FERIA batean ezagutu nuen, hain zuzen ere Tolosako ferian.

Feriako ganadua ikusi ondoren, tabernatxo batera joan nintzen bazkaltzera eta hantxe ikusi nuen aurreneko aldiz Arantxa. Taberna hartan egiten zuen lan, bazkaria zerbitzatzen. Berari begira gelditu nintzen. Bazkaltzeko ea zer nahi nuen hiru bat aldiz galdetu zenidan. Babarrunak eskatu nituen. Mantso - mantso jan nituen. Bazkari osoan ez nuen begirada plateretik altxa eta bere aurpegia irudikatzen saiatu nintzen.

Platerkada amaitu bezain laster burua plateretik altxa eta nire begiek bereekin egin zuten topo. Hantxe egon ginen pare bat minutu elkarri begira ezer egin eta esan gabe. Tabernatik irteteko ordua ahal nuen gehien luzatu nien, baina azkenean iritsi egin zen ixteko garaia. Hala esan zidaten behintzat.

Burumakur, bere begirada ahazten saiatu nintzen, baina ezinezkoa egiten zitzaidan. Bihotz barreneraino sartu zitzaidan neska hura. Ezin nituen bere begi handi haiek nire burutik kendu. Kale ilunak zeharo hutsak iruditzen zitzaizkidan bere begiradarik gabe. Nire zapatek asfalto beltzaren kontra ateratzen zuten soinua zen han sentitzen nuen soinu bakarra.

Bat - batean oinots azkar batzuk entzuten nituen nire bizkarraldean. Bira egin eta Arantxarekin egin nuen topo. Korrika etorri zen eta arnasarik gabe zegoen. Bere arnasa lasaitzen zen bitartean, irribarre bat marrastu zen nire ezpainenetan.

Kaixo, ni Arantxa naiz.

Ni Emilio.

Barkatu horrela aurkeztu izana, baina tabernan ikusi zaitut eta...

Lasai. Asko pozten naiz zu ezagutzeaz.

Lo egiteko leku bila nenbilela esan nion, eta nahi baldin banuen bere etxera joateko esan zidan.

Gau hura bere etxean pasa nuen eta baita gehiago ere ordutik aurrera, Arantxa nire neskalaguna bihurtu baitzen. Beragan bilatzen nuen gurasoen heriotza sortu zidan trauma eta bakardadea gainditzeko laguntza.

Hiru urte eman genituen elkarrekin eta ilargi bateko gau izartsu batean ea nirekin ezkondu nahi al zuen galdetu nion. Berak ia negarrez baietz erantzun zidan.

Orioko ermitatxo batean ezkondu ginen. Gure zoriontasuna mugagabea zen eta Arantxak haurdun zegoela esan zidanean, pozez saltoka hasi nintzen. Bazirudien ezerk ezin zuela gaizki irten. Baina zorigaitzaren laino beltzek gure zoriontasunaren zeru urdina tapatu zuten.

Bere haurdunaldiaren laugarren hilabetea zegoenean, haurra atzeratua zela esan ziguten. Oso kolpe gogorra izan zen guretzat eta asko hitz egin ondoren abortatzea erabaki genuen. Eta halaxe egin genuen.

Bazirudien umea hilda berriz ere zoriontsuak izango ginela, baina ez zen horrela izan.

Gauero eta goizero umearen itzala geneukan gainea. Etengabe gure bizitzak estaltzen zituen, edonora joaten ginelarik ere gure atzetik etortzen zena. Gai horri buruz ez hitz egiten saiatzen ginen baina beti azaltzen zen zirrikituren batetik.

Orduan, Arantxa eta biok gure bizitzako erabakirik gogorrena hartu genuen, geure buruaz beste egitea.

Bi arma lortu genituen. Mendi batetara igoko ginen, bertan bata bestearen aurrean jarriko ginen eta geure buruari tiro egingo genion.

Hiru arte kontatu genuen eta berak tiro egin zuen. Baina nik ezin nuen, izozturik nengoen. Pistola irristatu egiten zitzaidan eskuetatik eta zeharo astuna iruditzen zitzaidan. Filme bateko irudiak bailiran gogoratzen dut dena. Bere gorputzak lurraren kontra atera zuen zarata eta bere azken hitzak: KOLDARRA! Bai, halaxe nintzen. Koldar hutsa.

Korrika alde egin nuen handik eta tren batean joan nintzen herritik. Eta ordutik hona haurraren eta Arantxaren itzaletatik ihes ibili naiz bizitza osoan. Baina duela zazpi urte gaixotasun larri bat harrapatu nuen etaitsu geratu nintzen. Gainera urteak igaro dira eta indarrak ahitu zaizkit. Baina nire azkeneko pausuek hona ekarri naute, zeuregana. Orain lasai nago. Zain ea noiz helduko den maite ditudanengana eramango nauen trena, Geltoki

bakar bat daukana. Espero dut bertan zain edukiko ditudala Arantxa eta haurra".

Istoriaa amaitu zuenean, etxera joan nintzen. Galdera pilo bat neukan zuri egiteko, baina erantzun gabe geratu ziren. Hurrengo egunean parkera joan nintzenean dena hesiturik zegoen eta kartel handi bat bakarrik aurkitu nuen:

EROSI